

Liderra da tokiko elikagaiak merkaturatzen

EROSKI-K %19 IGO DU EUSKO LABEL ZIURTAGIRIA DUEN ARABAKO PATATATEN SALMENTA

- Ziurtagiri hori Eusko Jaurlaritzako HAZI Fundazioak ematen du, eta guztira, 1.270.776 kilo patata saldu du
- Kooperatibak bi kanpaina daramatza dagoeneko Eusko Labela duen Arabako patata saltzen EROSKI Natur marka propioarekin
- UDAPA kooperatibaren bezero nagusia da EROSKI; hura da Arabako ekoizle bakarra, patata Eusko Label ziurtagiriarekin saltzen duena
- EROSKI indartu egin du politika komertzial arduratsua egiteko hartua duen konpromisoa, eta hala dihardu produktu autoktono honen errentagarritasuna eta iraunkortasuna bermatzen

Elorrio, 2019ko apirilaren 26a.- [EROSKI](#) liderra da Arabako patata ziurtagiriduna merkaturatzen. Eusko Jaurlaritzako HAZI Fundazioak zaintzen du ziurtagiria; organismo horren zeregina da patata soroak kontrolatzea eta Eusko Labelaren "K" ikurra ematea. 2018-2019 kanpaina amaiturik, %19 igo da kooperatibaren salmentan produktu horretan; guztira, Eusko Label ziurtagiria duten 1.270.776 kilo patata izan dira. Bestalde, Euskal Baserri ziurtagiria duen patataren erosketak 1.973.065 kilotara igo dira kanpaina honetan. Guztira, EROSKI 3.200 tona baino gehiago saldu du Arabako patata ziurtagiridunetik.

Kooperatibak amaitu du Arabako patataren sasoi ofiziala, eta kanpaina honetan, indartu egin du Arabako nekazariekin duen konpromisoa. Arabako patata ondo errotua dago lurraldean, eta ingurumen irizpideen arabera lantzen da, ekoizpen integratuko eredu bati segituz. Osasun berme handia ematen du, eta sukaldaritzan erabiltzeko ezaugarri on-onak ditu. *"Euskal Baserri eta Eusko Label zigilua duen Arabako patata bere kalitateagatik bereizten da. EROSKI kalitate oneneko janari freskoa eskaini nahi diegu kontsumitzaileei; horregatik daramatzagu bi kanpaina Eusko Label patata saltzen Eroski Natur marka propioarekin. Guk proposamen espezializatu bat egiten diegu kontsumitzaileei janari freskoetan, eta hori gure denden bereizgarri bihurtu da, tokian tokiko janari ekoizpenaren salmentarekin batean. Kontsumitzaileak gero eta gehiago balioesten ditu bere ingurune hurbiletik datozen janariak, kalitate onekoa delako eta autoktonoa denarekin sentiberatasun handiagoa duelako"*, esan du Asun Bastidak, EROSKIren Tokiko Produktuen zuzendari komertzialak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Euskal Autonomia Erkidegoan, nekazaritzako elikagaien 300 ekoizle txikirekin dihardu EROSKIk 2.000 produktu baino gehiago saltzen. Erosketak egiten dizkie epe erdiko eta luzeko akordioen bitartez, eta horrek egonkortasuna dakarkio nekazaritzako elikagaien sektore iraunkor eta oso dibertsifikatu bati. EAEko sektore ekonomiko guztiak aintzat hartuta, EROSKI 1.900 hornitzaileekin ari da lanean Euskal Autonomia Erkidegoan, eta 650 milioi eurotik gorako erosketa egiten die urteko.

UDAPAREN bezero nagusia da kooperatiba; hura da Arabako ekoizle bakarra, patata Eusko Label ziurtagiriarekin saltzen duena. EROSKIk eta Udapak 25 urte pasa daramatzate elkarrekin lanean. "*Arabako gure nekazarien 275 bat hektarea bildu ditugu, eta, hala, %6 igo da patataren azalera 2018arekin alderatuta. Joan den udako tenperatura handiak ekoizpenean eragin zuen, eta haren errendimendua ez da iritsi 2018kora*", esan du Alfonso Saez de Camarak, UDAPako gerenteak.

Eusko Labeli eta Euskal Baserriri buruz

Eusko Label marka bat da, Kalitatearen K batez seinaleztatzen dena; horrela identifikatzen eta bereizten ditu marka horrek nekazaritzako elikagaien ekoizpenak Euskal Autonomia Erkidegoan eraldatuak edota ekoiztiak izan direla, zeinak beren kalitateagatik eta berezitasunagatik nabarmentzen baitira. Haren helburu nagusiak dira kontsumitzaileari kalitate maila handia bermatzea, jatorria identifikatzea, produktuen benetakotasuna segurtasun osoz bermatzea, ekoizleen lanbidea defendatzea eta kalitatezko ekoizpena sustatzea.

Euskal Baserri, berriz, berme marka bat da bermatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko baserrietatik hurbil diren baratze eta ustiategi txikietan ekoiztiak izan direla frutak eta barazkiak, hau da, belaunaldiz belaunaldi *baserriarrek* egin izan duten bezala.

EROSKI Natur markari buruz

EROSKI Natur markarekin biltzen dira frutategiko produktu freskoak, harategikoak eta arrandegikoak, hemengo jatorria dutenak eta kontserbatzailearik eta gehigarriarik ez dutenak. Marka horrekin, bermatuta eta kontrolatuta dago produktuek gordetzen dutela zapore naturala ematen dieten ezaugarri organoleptikoak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)